

2. SEGMENTAZIOA:

Gure aplikazioa segmentu bakarrera egongo da bideratuta, unibertsitateko ikasleetara. Beraz, segmentu honetarako baliabideak jarri ditugu gure aplikazioan.

Unibertsitateko ikasleentzat aplikazioak zenbait gauza izango ditu: hasteko, aplikazioak galdetegi bat egingo dizu zure izaera jakiteko eta horrela zure modukoa den jendea eskeintzeko, gainera zure karrera berdineko jendea aurkeztuko dizu, modu honetan haiekin talde bat egin dezakezu, jendea ezagutzen joateko eta nahi duzuen gauzei buruz hitz egiteko. Ikasle bakoitzak profil bat izango du, bertan bere izaera azalduko da eta ikasle bakoitzak nahi dituen gauzak eskegi dezake (argazkiak, apunteak, bideoak...). Profilen bidez ikasleak ezagutu eta lagundu egiten dira, hau da, haien apunteak edo lagungarriak partekatu dezakete.

Gainera, garraioa lortzeko apartatu bat jarriko dugu, hainbat leku ezberdinetako jendea doa unibertsitatera, beraz, askota zaila da garraioa lortze. Gure aplikazioaren bidez ikasleak haien artean lagundu ahal dira klasera joateko (kotxeak partekatuz).